



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
M. Izaskun Altxu Ariztegi

2018ko maiatzaren 10ean, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. UA 2KO MUGAKETAREN ALDAKETA.

Aztertu da UA 2ko mugaketa aldatzeko agiria, M.Z.S.S. eta beste batzuk sustatu dutena. Arkitekto aholkularien txostenak kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 143.2, 74 eta 72. artikuluekin bat etorritik, aho batez erabakitzen da:

1. UA 2ko mugaketa aldaketari hasierako onespenera ematea.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, jendaurrean egon dadin hoge laneguneko epean.
3. Erabaki hau jakinaraztea aldaketaren eremuan sarturik dauden lurren jabe guztiei.

3. HIRIGINTZA HITZARMENA. UB 10EKO LAGAPENAK.

Aztertu da UB 10eko lagapenak berrantolatzeko kudeaketako hirigintza hitzarmena. Hitzarmenean parte hartuko dute Iturengo Udalak alde batetik, eta A.B.A. eta A.M.J.k bestetik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa betetz, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespenera ematea hirigintza hitzarmenari, espedientearen abiarazteko baizik ez.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, jendaurrean egon dadin hoge laneguneko epean.
3. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei.

4. HIRIGINTZA HITZARMENA. HERRI-ERDIGUNEKO BIDEA.

Idazkariak laburbildu ditu espedientearen aurrekariak: J.A.I.U., beste batzuekin batera, aurkeztu zuen lehendabizi Arau Subsidiarioak aldatzeko zirriborroa eta gero plan berezia,



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Iturengo Arau Subsidiarioetako herri-erdigunean irudikatutako bide orientagarria ezabatzeko; arkitekto aholkulariek txostenak egin zituzten eta hainbat puntu aldatzeko eskatu; bilerak egin ziren gaiaz hitz egiteko; zenbait alderdiei buruzko kontsulta teknikoa egin zen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuan; gaiari konponbidea emateko asmoz, hirigintza hitzarmen baten zirriborua eskaini zuen udal ordezkariak modu ez formalean; I.I.M.k, sustatzaileen izenean, hirigintza hitzarmenaren testu berria aurkeztu zuen.

Jarraian, Jagoba Manterolak hitza hartu eta azaldu du: ez dagoela ados aurkeztutako agiriarekin; deserosoa izan dela prozesua udalkideentzat, jasan behar izan dituzten akusazio, gaitzespen eta abarreatik; Udalak proposatutako hitzarmenari zerbait gehitzeko aukera zutela baina ez hitzarmen berri bat inposatu nahi izateko, teknikoki onartu ezin den testu batekin gainera. Proposatzen du 10 eguneko epea ematea sustatzaileei Udalak proposatutako hitzarmena onartzeko; ez badute nahi, plan bereziarekin jarraitu beharko dute.

Javier Bereauk aipatu du bidea desagertzea dela lortu nahi den helburua eta hori garbi dagoela Udalak proposatutako hitzarmenean.

Ondoren, aho batez erabakitzen da Udalaren hitzarmenaren testua bidaltzea formalki sustatzaileei eta 10 eguneko epea ematea agiriarekin ados dauden ala ez jakinarazteko.

5. 2017KO KONTUAK.

2017ko kontuen espedientea aztertu ostean, Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, aho batez erabakitzen da:

1. Aldeko txostena ematea 2017ko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Jarraian, kontu-hartzailearen txostena irakurri da. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina negatiboa denez (-2.453,32), aho batez erabakitzen da 2018ko bestetako aurrekontu-saila (1-3380-22620 kodea) 2.453,32 euro murriztea.

6. PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA.

Kontuan izanda 2017ko ekitaldian ez zirela bete Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako gastuen gaineko araua eta aurrekontu egonkortasuna, aho batez erabakitzen da ekonomia eta finantza plana onestea, 2018ko eta 2019ko ekitaldietan haiek betetzea xede.

2/2012 Lege Organikoaren 23.4 artikuluan eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen 1463/2007 Errege Dekretuaren 26. artikuluan xedatua bete beharrez, erabakitako onespina jendaurrean egonen da, ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturik, aditzera emateko ez beste deusetarako.

Ekonomia eta finantza planaren kopia bat jendearen eskura egonen da harik eta planaren indarraldia bukatu arte, orobat aditzera emateko ez beste deusetarako.

7. BAKE EPAILE ORDEZKOA.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Bake epaile ordezkoreen kargua hutsik dagoela iragarri zuen Udalak, Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat, baita Bake Epaileei buruzko 3/1995 Erregelamenduaren 5., 6. eta 7. artikuluetan ezarriarekin bat ere.

Iragarkia 2018ko martxoaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (43. zenbakia), interesdunak aurkeztu ez zelarik.

Espedientean dauden agiriak aztertu eta aipaturiko araudian xedatutakoari jarraituz, aho batez –arazko quoruma- erabakitzen da:

1. Jose Ignacio Ariztegi Etxepetereku hautatzea Ordezko Bake Epaile izateko.
2. Erabaki hau jakinaraztea Ariztegi jaunari eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari.

8. ESKABIDEAK.

Ez dago eskabiderik.

9. MOZIOAK.

1. Aho batez onesten da GURE ESKU DAGO-ren mozioa, erabakitzeko eskubidearen eta maiatzaren 6ko kontsultaren alde.

2. Aho batez erabakitzen da Iturengo Udalaren babes adieraztea “Abriendo fronteras-Mugak Zabalduz” antolaturiko KARABANA E.H.-ri.

10. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017ko 47 eta 48.
- 2018/14tik 2018/37a arte.

11. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali den baso aprobetxamenduko baimen eskaera —J.M.G.rena—; Natur Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariaren 159/2018 Ebazpena —sakabanaturiko zuhaitzia aprobetxatzeko baimena—; zenbait herrietan gas naturaleko sareak hedatzeko baimena (Energia, Meatzeak eta Industria Segurtasuneko Zerbitzuko zuzendariaren 72/2018 Ebazpena); *Ameztia* eta *Asurdi* alderdietako egur loteak ateratzeko epearen luzapena; Nafarroako Gobernuak emandako baimenak larreak erretzeko —J.M.A., I.B. eta F.A.ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako Ebazpenak —2018ko martxoaren 8koa, M.B.U.i baimena eman ziona erreka ura aprobetxatzeko; 2018ko martxoaren 16koa, J.M.A.i baimena eman ziona pista irekitzeko—; Ehiza Mankomunitateko agiriak; Elgorriagako Udalak, 2017ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran hartutako erabakia, Medikuen Etxearen portzentaien banaketa berria onetsi zuena; Zubietako Udalak bidalitako agiria, zeinean *Uraren bideko* obraren esleipena jakinaratzen baitu; Abeltzaintzako Zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

mugimenduak —M.I.M.ren alta eta M.V.E.ren baja—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; “*El reto 2018- Ronda a Navarra*” izenburuko martxa; HELPBIDEA proiektua; Baztan-Bidasoako mapa zikloturistaren II. fasea.

2. Aho batez erabakitzen da aurtengo sutarako egur loteak atera eta banatzeko lanen ardura ematea EGURLAN enpresari, tonako 30 eurotan (gehi BEZa).

3. *Ibarrola* parajea, errekaaren ondoan, erori zen sahatsa 4 eurotan zenbatetsi du Nafarroako Gobernuak mendizainak. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da arbola herritarrei eskaintzea bando bidez. Eskaera bat baino gehiago aurkeztuko balitz, zozketa egingo da.

Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aho batez aitortu ostean, gai hau aztertu da:

2017ko azaroaren 17ko eta 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialetan eman zen argitara 448/2017 Ebazpena, azaroaren 6koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana. Ebazpen horretan onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, argiteria publikoaren atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda eta, horrekin batean, urtez urteko banaketa. Finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrendan dago Aurtizko kaleko argien berritzea, 2019an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. Aurtizko kaleko argien berritze proiektua onestea, O.J.C.M. eta J.J.V.F. ingeniariak egin.
2. Inbertsioaren finantza plana onestea.
3. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako zuzendari nagusiari.

12. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 17:50ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.